



# **BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA**

## **PROBA LIBREA**

### **KOMUNIKAZIO-EREMUA EUSKARA ETA LITERATURA**

**2015eko AZAROA**

**IZEN-DEITURAK:** \_\_\_\_\_

**SINADURA:**



## JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri.
2. Galdera guztiak erantzuten saiatu.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, errepasatu idatzitakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena biribildu edo gurutze bat egin.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.

## 'Loreak' Oscarretarako bidean izango da

*“Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. Beti ordu berean. Beti modu anonimoan. Bestalde, lore misterioitsu batzuek Lourdesen eta Tereren bizimoduak ere aldatuko dituzte. Ezezagun batek lore-*



*sorta bat utziko du astero, eurentzat hain garrantzitsua izandako norbaiten oroimenez”. Hori da “Loreak” Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren filmaren abiapuntua. Abiapuntu itxuraz xume horrek, baina, esanahi, irudi eta gogoeta sakonak ezkutatzen ditu, filmaren ia 100 minutuetan...*

“Loreak” atzerriko film onenaren Oscar sarietarako hautagaia da. Espainiako Akademiak euskaraz filmatutako lana aurkeztuko dio Hollywoodeko Akademiari sarirako azken aukeratutakoen artean, otsailean, Los Angelesen, sariaren bila jardungo diren filmen bidean, aintzat har dezan.

Espainiako Zinema Akademiak aukeratutako beste bi hautagaiei gailendu zaie "Loreak", "Magical girl" iazko Zinemaldiko Urrezko Maskorraren irabazleari eta "Felices 140" Gracia Querejetaren lanari. Moriarti ekoiztetxearen filma da, eta iazko Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten; kritika arrakasta handia izan zuen.

AEBko Zinema Akademiaren hautaketa batzordearen esku egongo da orain ETBren parte-hartzea duen filma otsailaren 28an Kodak antzokiko alfonbra gorrian egongo den erabakitzea. Mundu osoko 80 filmen artean aukeratuko dituzte finalistak.

Bide luze eta nekeza du orain aurretik "Loreak"ek: balio artistikoa frogatu eta berretsita, AEBko banatzaileak kanpaina gogorra egin beharko du Atlantikoaz haraindi, filma azken aukeratuen zerrendan sartzeko eta otsailean atzerriko film onenaren sarirako behin-betiko hautagaien artean egoteko. Lehen urratsa emanda dago, nolanahi den, eta pauso sendoa da zinez.

EITB eta Berría (moldatua) 2015-09-29



**1. Hurrengo baieztapenak egia (E) ala gezurra (G) dira? Idatzi baieztapen bakoitzaren ondoan. (1,4 ptu.)**

1. "Loreak" euskaraz egindako filma da.
2. Film horretan, pertsonaiek loreak jasotzen dituzte, aldiro, arrazoi desberdinak direla eta.
3. Filmaren abiapuntuak apala ematen du.
4. "Loreak" filmak badu halako misterio kutsua...
5. Filmaren sinbologiaren esanahia hasieratik bertatik antzematen da.
6. EITB-k lagundu du filma ekoizten.
7. Hollywoodeko Zinema Akademiak erabaki behar du ea "Loreak" atzerriko film onenaren sarirako finalistetako bat izango den.
8. "Loreak" filma Donostiako zinemaldian estreinatu zuten 2014. urtean.
9. Beste bi filmekin lehiatu da "Loreak" eta Espainiako Zinema Akademiak sari bat eman dio.
10. Film honek ibilbide ona egin badu ere, hobe izateko esperantzatan daude denak.
11. Oraindik lehenengo urratsak baino ez ditu eman "Loreak"ek Oscarretarako bidean.
12. Orain, "Loreak" filma bultzatu eta ezagutzera eman behar da Estatu Batuetan.
13. Zalantzarik gabe, alfonbra gorrian, Kodak antzokian egongo da "Loreak".
14. Azken aukeratutakoen artean sartzea ez da izango lan erraza.

**2. Zergatik sustatu, bultzatu eta promozionatu behar dute Loreak filma Ameriketan? Zure hitzekin erantzun. (0,5 puntu.)**

---

---

**3. Zein da testuaren helburua? (0,2 puntu)**

- A. Gertakari bati buruzko iritzia ematea.
- B. Irakurleak filma ikustera joateko konbentzitzea.
- C. Gertakari baten berri ematea, zer, noiz, gertatu den eta nori gertatu zaion kontatzea; Informazioa ematea.
- D. Irakurleak entretenitzea.

**4. Zer testu genero da? (0,2 puntu)**

- A. Albistea.
- B. Erreportajea.



- C. Artikulua.
- D. Film iruzkina.

**5. Edukiari erreparatuta, zein dira testu honek dituen atalak? (0,2 puntu)**

- A. Izenburua eta informazioa.
- B. Izenburua, filmaren laburpena eta informazioa.
- C. Izenburua eta azalpena bost paragrafotan.
- D. Izenburua eta argudioen garapena.

**6. Honako hauetatik zein da testuaren laburpenik egokiena? (0,5 puntu)**

- A. "Loreak" euskaraz filmatutako lanak Espainiako Zinema Akademiaren saria jaso du eta orain Los Angelesen, Oscarretan ikusiko dugu.
- B. Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da loreen kausaz. Loreek ere Lourdesen eta Tereren bizimodua aldatuko dute. Loreak filmak harrapatu egingo zaitu Espainiako Zinema Akademiakoak harrapatu dituen moduan. Otsaileko sari-banaketan euskal aktore eta aktoresak ikusiko ditugu alfonbra gorrian.
- C. Esanahi eta irudi sakonak biltzen dituen euskaraz eginiko "Loreak" filma aukeratu du Espainiako Akademiak Oscarretan lehiatzeko. Hollywoodeko Akademiak mundu osoko 80 filmen artean aukeratuko ditu finalistak Oscar sarian lehiatzeko.
- D. 100 minutuko "Loreak" film xumea Oscarretan lehiatuko da Espainiako Zinema Akademiak onena dela erabaki baitu. Euskaraz filmatutako lan honek EITBren laguntza ere izan du.

**7. Testuan azpimarratuta dituzu zenbait hitz. Zeintzuk dira hitz horien sinonimoak? Aukeratu zerrenda honetatik eta txertatu azpiko taulan, adibidean bezala. (0,8 puntu)**

Sinonimoak: kontuan eduki, apal, dena dela, benetan, nagusitu, konfirmatu, erabat, ari izan, pentsamendu.

| (Adibidea) goitik behera | erabat |
|--------------------------|--------|
| 1. xume                  |        |
| 2. gogoeta               |        |
| 3. jardun                |        |
| 4. aintzat har(tu)       |        |
| 5. gailendu              |        |
| 6. berretsi              |        |
| 7. nolanahi den          |        |



8. zinez

benetan

**8. Zer adierazten dute honako esapide hauek? Azaldu zure hitzekin (0,6 puntu)**

Norbaiten oroimenez

---

AEBko banatzaileek

---

**9. Berridatzi honako esaldi hauek parentesi arteko hitzak erabiliz, adibidean bezala: (0,9 puntu)**

*(Adibidea) AEBko banatzaileak kanpaina gogorra egin beharko du Atlantikoaz haraindi, filma azken aukeratuen zerrendan sartzeko. (sar)*

*AEBko banatzaileak kanpaina gogorra egin beharko du Atlantikoaz haraindi, filma azken aukeratuen zerrendan sar dadin.*

- Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. (momentuan)

---

---

- Ezezagun batek lore-sorta bat utziko du astero, eurentzat hain garrantzitsua izandako norbaiten oroimenez. (zen)

---

---

- (...) hautaketa batzordearen esku egongo da orain ETBren parte-hartzea duen filma otsailaren 28an Kodak antzokiko alfonbra gorrian egongo den erabakitzea (erabakiko)

---

---

## 10. Bilatu lehenengo paragrafoan honako kategoria gramatikal hauek: (0,7 puntu)

Adibide bat ematen dizugu:

- 0.-Izen berezi bat: Lourdes
1. Aditzondo bat (adberbioa):
2. Bi izenondo (adjektiboak):
3. Izenordain bat:
4. Aditz bat:
5. Izen arrunt bat:
6. Lokailu bat:

## 11. IDAZLANA (4 puntu)

Egunkari digitalean honako iragarki hau irakurri duzu:



**Filmak, filmak, filmak...**

*Filmez inguratuta bizi gara, genero askotakoak, onak eta ez hain onak, Hollywoodeko filmak, mundu osokoak eta hemen sortutakoak, batzuk ezagunak beste batzuk ez hainbeste... Baina zein film joango gara ikustera? Hori erabaki zaila! Filmei buruzko iruzkinek gidatzen gaituzte batzuetan, baina, askotan, lagunen iritzia dira fidagarrienak. Horregatik, **ZEURI** galdetu nahi dizugu: **Zein film ikusi duzu orain dela gutxi? Zure iritzia jakin nahi dugu.***

*Filmearen laburpena eta zure iritzia idatziz gero, gure webgunean zintzilikatuko dugu (<http://filmakdenontzat.com>) eta gure lehiaketan hartuko duzu parte. Bidaia bat zozketatuko dugu idazten duzuenon artean. Nora? Hollywooodera, jakina!*

**Idatzi eta Parte hartu!**

**Bidali zure testua honako helbide honetara:**

[filmakdenontzat@euskalfilmak.eus](mailto:filmakdenontzat@euskalfilmak.eus)

Parte hartuko duzula pentsatu duzu; izan ere, aukera ona duzu beste irakurle batzuei zure iritzia emateko eta, suerte pixka batekin, lehiaketa irabaz dezakezu!

Gutxienez, 120 hitz idatzi behar dituzu.

